

Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2001eko uztailaren 20a VI.urtea

Usurbil, 118. zenbakia



Antenak susmopeak

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Alexander!** Abuztuaren 29an 4 urte beteko dituzunez ondo-ondo pasa. Zure guraso, aiton-amonak eta anaiaren partez.



Mikelek uztailaren 17an bete zituen urteak. **Xubanek** eta **Beñatek**, berriz, hilaren 21 eta 27an beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Uztailaren 25ean 5 urte betetzen ditu gure **Garikotzek**. Ondo pasa zure egunean! Denon artean ospatuko dugul Zorionak etxekoan partez.



Zorionak **Jon!** Abuztuaren 15ean 7 urte beteko dituzu. oso ondo pasako dugula-koan muxu haundi bat denon partez.



Hilaren 23an 50 urte beteko ditu **Jexuxek**, **Maierrek**, berriz, 26 urte egun berean. **Eneldaren** txanda izango da hurrena, uztailaren 28an 13 urtera iritsiko baita. **Ainhoak**, berriz, argazkian bestelakorik ematen badu ere, 18 urte beteko ditu abuztuaren 6an. Zorionak etxekoan partez.



Zorionak **Sarai!** Uztailaren 23an 8 urte betetzen dituzunez, muxu haundi bat zure guraso, anai, Arantxa eta Aitziberren partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: irailak 14

Ekaritzeko azken eguna: irailak 7

Noaua aldizkaria!
Bordaberri 3
Usurbil

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuarte-an badabilkizu edo eta herriko zerbaitezaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskuiztaz izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noauan argitaratu emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskuiztaz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udalizaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Udarregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzaintza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkarre	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Bake epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

Eusko Tren-en udako tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.17	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.17	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17	15.33	15.50	15.38	15.54	16.09
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17	16.33	16.50	16.38	16.54	17.09
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17	17.33	17.50	17.38	17.54	18.09
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17	18.33	18.50	18.38	18.54	19.09
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17	19.33	19.50	19.38	19.54	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17	20.33	20.50	20.38	20.54	21.09
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	21.09

* Astegunetan bakarrik

* Astegunetan bakarrik

Eusko Tren-en udako autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Orioraino **Aiaraino

■ Asteburutan

*Oriorik

**Aiarik

■ Asteburutan



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Elzendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbiet, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitx Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Ker-man Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko
jendaurreko
ordutegia:**

**10.00-14.00 / 16.00-20.00
astegunetan**



Zorte on Mr. Grosky

Aitor Pikabea

Noaua!k, ondo merezitako oporraldiak hartu aurretik, internetetik iritsi zaidan istorio txiki bat helarazi nahi nizueke.

Neil Armstrong, Apoloko astronautak, lehen aldiz ilar-gia zapaldu zuenean, ez zuen "gizonarentzat pauso txiki bat, gizakiarentzat pauso haundi bat" esaldi ezaguna bakarrik esan. Geroago, berak, beste astronautak eta kontrolerako zentroaren artean zenbait hitz esan zituzten. Hala ere, kapsulara itzuli aurretik ulertu ez zen zerbaite esan zuen:

- Zorte on Mr. Grosky.

NASako pertsona askok, sobietar kosmonauta bati zuzenduriko hitzak izan zitezkeela pentsatu izan zuen. Hala ere, azterketa sakonen ondoren, ez Errusian ez Ameriketara egin ziren proiektu espazialekin, ez zen Grosky izeneko inor aurkitu.

Urte askotan, pertsona askok galdetu zion Armstrong-i "zorte on Mr. Grosky" esaldi horren esanahiaren inguruan. Armstrong-ek berriz, azalpenik eman

gabe, irrifartxo batez erantzun ohi zuen beti.

Duela urte batzu (Tampa Bay FL-en 1995eko Uztailaren 5ean), diskurtso baten ondoren egiten zitzaizkion galderak erantzuten ari zela, kazetari batek 26 urte airean zeramatzan galdera atera zuen. Azkenean, oraingo onetan galdera erantzutea erabaki zuen.

Mr. Grosky, hila zen, eta Neilek egindako galderari azalpenak ematerik bazuela sentitzen zuen.

Umea zela, lagun batekin beisbolean atzeko patioan jolasten ari zen Neil. Lagunak pilota indarrez jo eta bizilagunen logelako leiho aurrera iritsi zen. Neilen bizilagunak Grosky andre-gizonak ziren.

Neil pilota jasotzeko asmoz makurtu zenean, Grosky anderea, Grosky jaunari oihuka entzun zuen:

- Ahozko sexua?! Ahozko sexua nahi duzula?! Ahozko sexua gure bizilagunen semeak ilargian bueltatxo bat ematen duenean izango duzu!



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!



Gregorio Arbeloa Irigoien

Etxealdiako estudioa margolanez betea du, batez ere, Euskal Herriko toki ezberdinetako paisaiez betea. Artea bizi behar dela dio eta dudarik gabe margoa da bere bizitza.



Noiz hasi zinen margoarenganako afizioa izaten?

Txikitatik hasi nintzen. Afizioa hartu nuen, kirola gustatzen zaionari bezala, niri artea gustatu zitzaidan.

Eta noiz hasi zinen koadroak pintatzen?

Eskolan. Liburu guztiak marrazkiz beteak nituen. Picassoren antzeko marrazkiak egiten nituen eta saldu egiten nituen, jendeari gustatu egiten zitzaizkion. Garai hartan inork ez zuen estilo hori egiten, 50.hamarkadan hasi zen estilo hori, 55 urte inguruan, estilo banguardista. Marrazketa asko gustatu zitzaidan; gainera, hamairu urterekin inprenta batean hasi nintzen lanean eta inprenta ezberdinetan artista ezberdinak ezagutu nituen. Irakasle handiak izan ditut: Martiarena, Gallego... Inprentako lanaren osagarri egokia zen margoa, nik fotomekanikan egiten bainuen lan. Gaur egun ere serigrafia egiten dut.

Estilo guztietako margolanak egiten al dituzu?

Bai. Baina gehienbat paisaiak egiten ditut. Bilbo-ko Akwarelista Elkarteko kide naiz, urte asko daramatzat bertan. Nire lehenengo erakusketa Zangoztan egin nuen 1974an, baina aurretik ere kolektiboak egin izan nituen. Orain arte bakarkako ehun erakusketa baino gehiago egin ditut eta galeria ezberdinetan jarri izan ditut lanak, Etxeberria (Donostia)... Estilo askotakoak egiten ditut eta akuarela, olio pintura... lantzen ditut.

Lanak zuzenean egiten dituzu ala argazkietatik ateratzen dituzu irudiak?

Bietan aritzen naiz. Naturalean egiten ditut, hau da lekura bertara joan eta han egin, baina batzuetan argazkietatik ere ateratzen ditut margolanak. Dena den, argazkitik bakarrik margotzen

baduzu, naturalean marrazteko erraztasuna galtzen duzu. Lekura joan eta han egin behar da lan, pintura bizi egin behar da. Argazkia ongi aztertu dezakezu lanean hasi baina lehen, baina freskotasuna ere galtzen da.

Non egiten dituzu erakusketak?

Dezente mugitzen naiz. Baditut batzuk urtero finkoak direnak; Hondarribian, Zarautzen... eta beste batzuetatik deitu egiten didate.

Zenbat ordu ematen dituzu margotzen?

Egun batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago... baina ordu dexente ematen ditut. Niretzat ez da lana egitea, asko gustatzen zait eta.

Zenbat denbora behar duzu gutxi gora behera koadro bat egiteko?

Koadroaren arabera da hori, baina denbora gehiago pasatzen da beti olio pintura lantzera-koan akuarela bat egiterakoan baino.

Salgai jartzen al dituzu egindako lanak?

Bai. Salduko ez banitu ez nintzateke motibatua egongo. Artea margotzea da, baina baita saltzea ere. Dena den, ez du bizitzeko adina ematen. Jendearen erantzunak motibatzen zaitu gehienbat. Nire obra eduki eta jarraitzen nauen jendea badago. Margotzea garrantzitsua da baina baita mundu hori bizitzea ere.

Zertan oinarritzen zara erakusketa batera koadro bat edo beste eramateko?

Lekuaren arabera da hori. Badakit, adibidez, Lizarrara banoa bertako paisaiak eta Donostia ingurukoak eraman behar ditudala, Donostiako jende asko joaten baita hara.

ERRAZKIN

**Igeltseritza
orokorra**

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santueña Mob: 629 42 05 65

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Pinturas
lon



943 83 09 37 ☎ 670 397504

SANTUENEA

Udako oporrak

Isaac Muñoz



Aurten ere udako denboraldia iritsi zaigu eta dagoeneko uztailean gauden arren, urtero bezala gure auzoa erdi hutsik geratzen ari dela ikus daiteke. Izan ere, uztailetik aurrera jendeak oporrak hartzen ditu eta hori gure auzoan nabarmena da. Urtetik urtera jendeak oporretara joateko behar handiagoa izaten duela nabaria da, "estresa" delakoa-ren ondorioz. Badakigu "estresa" gaur egun modan dagoen hitza dela, baina, ez al dugu hitz hori aitzaki bezala erabiltzen oporretara joateko?

Oporretara joateko garaian aukera desberdinak daude: batzuk atzerri aldera joatea

erabakitzen dute, Paris edo Kubara, adibidez. Beste batzuk,



ordea, gustukoago dute Mediterraneo aldera joatea, eguzki bila edo. Bada "a mi pueblo" joaten jarraitzen duen beste asko ere. Eta, azkenik, herria zaintzen geratzen diren horiek daude.

Badakigu udak eragin nabaria duela pertsonengan, giro alaiagoa izaten da eta, batez ere, herri askotako festak izaten dira. Batzuek kanpora joateko beharra izaten dute, baina herrian bertan geratzen direnentzako ez dago aspertzeko aitzakiarik. Etxean geratu edo kanpora joan, garrantzitsuena norberak gustuko duena egitea da, beraz, badakizue, oporrak ondo-ondo pasa!

URDAIAGA

Asfalto berria

Joseba Zubeldia



Txokoaldetik presara igo-tzen den errepideaz hitz egitera natorkizue. Bazuen pre-mia, bai, errepide honek asfal-to on bat izateko.

Bertatik auto gehiegi igarotzen ez bada ere, izaten da bai bertatik pasatzea erabakitzen duenik.

Lehen hormigoizkoa zen errepide hau eta euri pixka bat egiten zue-nean oso irristakorra jartzen zen. Gainera, euriarekin zuhaitzetatik eroritako horbelak errepidean itsasten ziren



eta bertako maldak duen portzentaia haundi samarra denez, auto bat baino gehiago geratzen zen ez aurrera ez atzera. Dena zuen kontrako, beraz, bide zaharrak.

Orain, behintzat, ez da horrelako arazorik izango, lehengo errepidearekin alderatuz berriak autopista baitirudi. Baina horrek ez du esan nahi autopistan pare ibil zaitezkeenik errepide honetan, alegia, abiadura handiagoan ibili behar denik bertatik. Batzuk konturatzeko dauden arren, hemen ingurukoak ez dira azkar ibiltzeko errepidea, ez lehen ezta orain ere.

KALEZAR

Urko Manterola



Bazkaria San Roke egunean

San Roke eguna ospatzeko ohitura bada Kalezarren eta, aurten ere, usadio horri eutsiz, San Rokeren omenez hainbat ekintza antolatu dira. Berez eguna abuztuaren 16an bada ere, 15ean, Amabirjinaren jaia aprobetxatuz, herri bazkaria antolatu dugu Kalezarko Jai Batzordekoek.

Aurten lehenengoz izango da bazkaria San Roke egunez. Izan ere, urtero abuztuaren 16an Kalezarko ermitan meza izaten bada ere, gure-gurea dugun eguna indartu nahi izan dugu aurtengoan herri-bazkaria antolatuz. Bazkariatz gain, goiz partean asto-karrera eta

herri kirolak izango dira eta bazkalostean, berriz, trikitilariak.

Bazkaria Udarregi ikastola zenekoan izango da eta txartelak betiko lekuetan izango dira salgai. Beraz, badakizue, animatu guztiak bazkaltzera eta hala, ohitura zaharrak gogoratuz eta berrituz, hauek ez desagertzea lortuko dugu guztion artean.

Artean, eta hau udara aldeko azken kronika iza-

nik, tartetxo hau auzotarrak agurtzeko aprobetxatu nahi nuke. Festa eta opor garaia datorren honetan ondo pasa, baina pasatu gabe eta zaindu. Laster arte.



ATXEGALDE

Mari Karmen Mitxelena



Txikien jolasgunea errespeta dezagun


Atxegalden konpondu beharreko gauza batzuk atzeman ditudala eta, txoko honetaz baliatuko naiz. Lehenengo parkearen ingurukoa da. Gustura hartu genuen auzoan parkea berri izana, baina egunero-egunero haurrekin bertara jolastera joan eta kulunpioak hankaz gora topatzen ditugu, argazkian ikusten den modura.

Gainera, pixkanaka-pixkanaka jostailu guztiak puskatzen ari da norbait. Hau ikusita, parkea eta bertako kulunpioak pakean uzteko eskatu nahi nieke hain ume ez diren neska-mutil horiei. Errespetatu dezatela txikien jolasgunea eta lagun dezatela txukun mantentzen.

Bigarren kexa ez da ez haurrei ezta neska-mutilen zuzendua, kotxea dutenei baizik. Ondo dago herriko kaskoan multak jartzea, baina noiz-behinka Atxegalde aldera ere bueltaxkaren bat egin beharko lukete udaltzaingoek.

Jendea erabat errespetao galtzen ari da aparkatzeko kontu honekin, berdin baitaie kotxea espaloierdian,

portal aurrean edo kotxeek buelta emateko dauden lekuek tan uztea. Askotan etxeko portaletik ahalik eta gertuen utzi nahi dugu kotxea eta, nahiz eta urrutixeago izan, ez da hain zaila toki aproposa bilatzea.



TXOKOALDE

Olatz Goenaga



1997ko uholdeak gogoan

Uztailaren 15ean, Igandean goizean goiz euri jasa handiak izan genituen auzoan, eta batek baino gehiagok 1997ko ekainaren 1eko uholdeak gogoratu genituen. Momentu gutxian zaparra handiak egin zituen, eta bide eta ur bideetan ur asko jaisten hasi zen.

Orain dela 4 urte pasa genituen momentu txarretaz gogoratzen aritu ginen, egia esan ahazteko zailak direnak. Noaual!-k atera zuen ale berezia gordeta dauka-gu eta hango argazkiak ikusten aritu ginen. Ika-

ragarria da, nola geratu zen gure auzoa. Denbo-

ra gutxian urak egin dezakeen txikizioaz, zenbateko indarra hartzen duen eta harrapatzen duen guztia nola aurretik eraman dezakeen komentatzen aritu ginen. Izan ere, "Urak bere bidea egiten duela", dioen esaerak arrazoi handia du. Bes-

talde, zenbat jende mugitu zen auzoa txukuntzeko eta zenbat lan egin behar izan zen ere gogoratzen aritu ginen. Uholde horien ondorioz, Txokoaldeko urbanizazioak aldaketa batzuk jasan ditu, espero dugu onerako izango dela.

Bestalde uztailaren 14ean Akerra Gaztetxean, O.K. taldearen kontzertua izan genuen. Talde zaraustar gazte honen lehenengo kontzertua omen zen. Eguraldi txarrenez edo, ez omen zen jende gehiegi hurbildu gaztetxera, baina bertan izan zirenek giro bikaina sortu omen zuten.



KALEBERRI

Jokin Zubiaur



Gehiago orijinaletik itsusitik baino

Herriar gehienok ezagutuko duzue plaza hau. Izenez agian ez, baina bistaz bai. Hilabete pasa da inauguratu zenetik, eta entzun ditudan iritziak ez dira oso onak izan. Erabat itsusia dela ere entzun diot baten bati. Bada, niri gustatzen zait, niretzat orijinaletik gehiago dauka itsusitik baino. Nire ustez, ohituegiak gaude iturridun zelai edo parkeekin, eta horrelako hormigoi blokeekin beldurtu egiten gara, etxe baten eskeletoa delakoan.

Politak dira bai, Urdaiagakoa kasu, beste parke horiek, baina berri horri ere aterako zaio bere zukua. Festetan esaterako, pro-

betxu handia atera zaio: txosnak bertan egon dira eta sinis ezazue eskertu dugula zementuzko sapaia: galdetu bestela igande goizaldean (larunbat gauean) zazpiak aldera euria hasi zuenean etxeratu gabe zeudenei; edo Santixabel egu-



neko muslariei, sapaia eskaintzen zuen itzal freskoa nola gozatu zuten; I.Bola Txapelketa ere egin zen eta izugarrizko arrakasta izan zuen.

Gainera, txosnak bertan kokatzeagatik, pentsa geneza-keen txikizoren bat egingo zuela goizaldeko mozkorren batek; edo hainbeste jende atzera eta aurrera ibiltzeagatik tankera okerragoa izango zuela. Ba, lehenxeago esan didatenez txukun geratu da.

Izena ere egokia du. Haseran konnotazio politikoa zuelakoan banengoen ere, bertatik igarota konturatu naiz horretaz: kaxkoa askatu baitigu!

AGINAGA

Iratxe Begiristain



Oporrak batzuk eta lana besteek

Eguraldi ona, beroa, festak nonahi,... iritsi zaigu azkenik hainbeste desiratzen dugun urtaroa: uda. Ikasleek ikasturtearen momenturik txarrenak pasa eta parranda batzuk egiteko aukera dute orain, ondo merezitako oporraldiarekin eta langileak, berriz, arrunt bihurtzen den ordutegiari muzin egiteagatik nahikoa lo egin eta oporrak. Uda izaten da gehienentzat urte guztian egin ahal izan ez duguna egiteko parada ezinhobea.

Beste batzuentzat, ordea, langabetu eta ikasleentzat, gerriak bigundu eta patriketan xoxa batzuk izateko urtarorik egokiena izaten da. Izan ere,

aurten ere bada erriberetan makina bat piper landare bildu nahi dituenarentzat. Uztailean hasi eta urrian bukatzen den denboraldi honetan erriberetan gazte jende ugari mugitzen da, bakoitzak bere baldea eskuetan hartuta.

Bada ibaian gora eta behera ibili ohi denik ere. Asko dira piraguak hartu eta uda partean gure auzotik pasatzen direnak; Txokoaldetik hasi eta Orioraino jaitsiera izaten da gehienetan. Ibilbide



polita osatzen da ibaiaren inguruan biltzen den landare-tzagatik eta ixiltasunagatik. Bakoitzak, bada, aprobetxa dezala uda nahi edo ahal duen moduan eta laster arte!

ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



Festa usaina

Aurten ere, Santioak gerturatzan ari dira eta horrekin batera, gure herri txiki honek halako berpizte bat izaten du uztaila aldean. Izan ere, hainbat talde ari da festen ekintza ezberdinen lan-antolaketa, eta erritmo frenetikoa nabari da Zubieta aldean.

Alde batetik zama haundiena bere gain hartu eta lan txalogarriena egiten dutenak, nire iritziz, festa bartzordeko gazteak dira, aspalditik martxan dabiltzanak berriz ere programa txukun bat egiteko asmotan (eta dudarik gabe lortuko dutena). Bestetik, maiz ikusten dira soka-dantzako dantzari trebeak eskola txikietan bere

saioak burutzen, Santio eguneko saio nagusirako prestatzen.

Aurten ere, gure herriko aktore eta aktorea famatuek, bere laugarren obra eskainiko digute Santio ondorenean, orain arte, komediak izan dira nagusi, aurten, drama ote?

Igande goizetan ikus ditzakegu herriko pelotariak errebotetan, izan ere, txapelketa lokala edo herriko txapelketa jokatzan ari baita lau taldeen artean eta finala San Inazio egunean jokatu denez, lehia estua da orain artean. Danborradako prestaketak ere, hasiak dira dagoeneko eta hor egoten dira ostiral arratsaldetan maki-

lak eta danborrak astinduz, musikari segitu nahian, gizon, emakume eta ume; nahiko jende biltzen da izugarrizko burrunda ateriaz.

Elizako obrak ere, aurreratu samarrak dirudite, eta Santio egunerako, badirudi barneko obrak, behintzat, bukatuta egongo direla, nahiz eta kanpo aldetik "berde xamar" dagoela iruditzen zaiten. Bazuen premia txukuntzekoal. Eta azkenik, urtero bezala, gure gaztetxoek bere tarte izango dute festetan, ekintza ugaritan hartuko baitute parte eta beraie zuzenduriko eguna ere izango dute, ohi den bezala.

Telefono mugikorrak eta hauen antenak kezka iturri bihurtu dira

Ez genituen ezagutzen, baina azken hilabeteetan ezagunak egin dira. Telefono mugikorrekin batera datoz antenak eta jende askoren kezka iturri dira. Batzuen esanetan, hauek botatzen duten erradiazioak oso ondorio kaltegarriak ditu, besteen esanetan, berriz, ez dago kezkatzeko arrazoirik. Urdaiagan ere bada horrelako antena bat eta udala, bigarren bat jartzeko proposamena jaso zuenetik arautegi bat prestatzen ari da.

Azken urteotan ezagutu dugun fenomenorik ikusgarriena telefonia mugikorrarena izan da. Telefono mugikorra edukitzea gero eta normalagoa egiten zaigu eta gaur egun, orain dela urte batzuk gertatzen zenaren kontra, pertsona bat kalean horietako batekin ikusteak ez du harridurarik sortzen.

Baina telefono mugikorrak ugaltzarekin batera, beste osagai bat agertu da gure eguneroko paisaian: telefono horiei hedadura emateko beharrezkoak diren antenak. Ondoko auzokidearen teilatuan egon daitezke, edo auzoko mendi kaxkoan bestela. Usurbilen teilatuetan nekez aurkitu daiteke horrelakorik, baina Urdaiagan bada Amena-Euskaltelek erabiltzen duen antena bat. Duela urtebete inguru jarri zuten, noski, garai hartan ez zen antenen inguruko tirabirarik.

Horietako antena bat Urdaiagan dago

30 metroko antena hau herri-lurretan dago. Dagoeneko Retevisionen telebista antena bat bazegoen han eta udal ordezkariak telefono mugikorraren antena hau jartzeko baimena eman zuten, baina telefono mugikorraren operatzailerik ezberdinei antena hau erabiltzeko aukera ematea izan zen baldintze-



tako bat. Udalaren eskaera, ordea, bere horretan gelditu da. Azken hilabeteetan bi proposamen jaso ditu udalak eta orain dagoen antenak balio ez dienez beste antena bat jartzeko eskaera egin zuten.

Tradia enpresak, adibidez, oraingo antenaren ondoan 40 metroko beste antena bat jartzea proposatu zuen. Oraingo antena txikiegia zela eta Amena-Euskaltelen antenen azpian Xfera hirugarren belaunaldiko telefono mugikorraren antenak jartzea ezinezkoa zela argudiatu zuten. Dorre hau operadore ezberdinek erabili ahal izango zutela ere esaten zen.

Azken hilabeteetan, ordea, antena horien aferra pil-pilean dago. Bizilagun askok hauek eragindako osasun arazoak salatu dituzte eta honen aurrean hainbat udal neurriak hartzen hasi dira. Bi enpresa antenak jartzeko eskaera egin behar zutela jakin bezain laister araudi bat egiten hasi zen Usurbilgo udala. Iñigo Azpiroz hirigintzako idazkariaren esanetan araudi hori egiten hastea garrantzitsua izan zen. "Aurretik ez zegoen araudirik eta eskaera araudia egiten hasi baino lehen egin balute ezingo genukeen ezer egin. Orain, berriz, araudia onar-

tu bitartean eskaera horiei ezin diegu erantzunik eman".

Araudiari hasierako onespene eman zitzaion eta Alcotan eta Tradiak Urdaiagan antenak jartzeko egindako eskaerak atzera bota ziren, araudia behin-betirako onartu bitartean ezin baita honen inguruan erabakirik hartu. Orain antenak dauden lekuan antena gehiago ez jartzea da araudi honen helburu nagusia. "1.000 metro urrutiago edo orain dagoen telefono mugikorraren antena kendu eta beste haundiago bat egitea lortu nahi da".

Udalak Eudel-en oinarritzko arautegia aztertu nahi du

Hala ere, araudi honek alda-
ketak izan ditzake. Eudel (Euskadiko Udalen Elkarteak) udal-entzatzat baliagarria izango den oinarritzko arautegi bat prestatzen ari da eta udaleko ordezkariak hori aztertu nahi dute behin-betirako araudia onartu aurretik.

Oinarritzko araudi horren arabera, antenen kokalekuek, udalek jarritako urbanizazio arauak eta begien gaineko eragina errespetatzeaz gain, antena eta babestu beharreko eremuaren artean gutxienez 10 metroko tartea errespetatu beharko dute. Bestalde, opera

tzaile desberdinek kokaleku bera erabili beharra aipatzen da. Honela, operatzaile bakoitzak duen antenen arteko tartea 2.000 metrokoa baina txikiagoa bada, hauek antenak kokaleku berean jarri beharko dituzte. Azkenik, antena jartzeko baimena eskatzen dutenek ondasun eta pertsonen gain izan ditzakeen eraginak babesteko seguru bat aurkeztu beharra ere aipatzen da.

Momentu honetan Gobernu espainiarra antena hauen erradiazio elektromagnetikoaren inguruko araudia prestatzen ari da. Uztailerako prest egongo zela iragarri zuten, baina oraindik ez du argirik ikusi. Hainbat iturriren arabera 0,4 miliwatio zentimetro karratuko izan daiteke gehieneko kopurua. Horrez gain, dekretu honek telefono mugikorraren antenen instalakuntza arautuko du, baimenak ematea gobernuaren esku geldituz.

Ikerketak bai, baina adostasunik ez

Antenen erradiazio elektromagnetikoen inguruan herritarren artean informazio falta nabarmena da. Telefonía enpresek momentuz antenen kaltegarritasuna frogatzen duen ikerketa zientzifikorik ez dagoela esaten dute. Azken hilabeteetan hainbat ikerketen berri eman dute, baina hauek ere ez dira ados jartzen. Antenek pertsonengan eragin zuzena dutela frogatzen duten behin betiko ikerketari itxaron gabe neurriak hartzea defenditzen duten asko daude. Badaezpadako printzipioa eskatzen dute hauek. *"Hainbat osasun arazo azaldu dira antena hauetatik gertu bizi diren pertsonengan, baina operatzaileek kaltegarria ez dela argudiatzen dute. Zer da kaltegarria? Hil behar izatea? Osasuna hori baino askoz ere gehiago da, eta osasunari egin dakiokkeen kaltea behar bezala ikertzen ez den arte antena hauen jardura gelditzea zentzuzkoa dela uste dugu".*

Josu Aranberri

Telefono mugikorraren eta antenen balizko ondorioak

Telefono mugikorra haririk gabeko radiotelefonia sistema da, potentzia gutxiko eta frekuentzia altuko mikrouhinen igorle-hartzailea. Mugikorraren UHF bandan emititzen dute, 900 eta 1800 MHz bitartean, eta 2 watioko gehieneko potentzia batekin (buruaren ehuna babesteko legeko muga da hau).

Erradiaziorik arriskutsuena mugikorraren beraren antenatik dator. Telefonoa burutik zenbat eta urrunago egon, erradiazio hau orduan eta txikiagoa da, errepikagailua dagoen distantziaren arabera edota antena eta telefono mugikorraren artean dauden oztopoen arabera (eraikinak, kotxeak, metala...)

Osasunerako arriskuak Ikerketa Geobiologikoen Elkartearen arabera epe laburrean telefono mugikorra erabiltzen duten edo antenetatik gertu bizi direnen gain honako ondorioak izan daitezke:

- Estresa haunditzea, burmuinetako uhin eta bestelako biorritmoetan eragitea.

- Erreflexuak galtzea, erabakiak hartzeko orduan zailtasunak, memoria galtzea...

- Buruko min iraunkorra.

- Loia galaraztea.

- Belarrian eta tinpanoetan nahigabeak, burrunba, zorbioa eta bertigoia.

- Erritmo kardiakoan aldaketak eta palpitazioak.

- Presio arteriala igotzea.

- Belarri-gingilean zinuuriak eta begian kornea berotzea, kataratak izateko arriskua sortaraziz.

- Erredurak erradiazioa zuzenean jasotzen duten aldeetan.

- Gaizki egona.

Halaber, hainbat ikerketek telefono mugikorraren erabilerari epe luzera azaleko minbizi, burmuineko tumore eta Alzheimer gaitzarekin lotu dituzte.



Partaidetza ezaren ondorioz, Guraso Eskola desagertu egingo da

Guraso Eskolak hamar urte baino gehiagoko ibilbidea du bere bizkar, orain artean elkarte hau osatu dutenek duela 10 urte hartu baitzuten aurrekoen lekukoa. Denbora honetan guztian momentuan momentuko beharrei erantzuteko asmoz hamaika ekintza antolatu ditu, bai haurren heziketari zuzendurikoak eta bai emakumeei zuzendurikoak ere. Orain, Guraso Eskola desagertzera doa. Honen arrazoia jendearen partaidetza eza izan da. Kezkaz aztertzen dute Guraso Eskolako kideek hutsune hau, seme-alaben heziketa ez baita *"ahuntzaren gauerdiko eztula"*.

Guraso Eskola, ikastolarekin lotura estua izan duen arren, ez da izan propio ikastolako elkarte bat, herriko elkarte bat baino. Bere sorreratik helburu nagusitzat izan du, izenak berak ederki zehazten duen modura, gurasoen heziketa, *"inork ez baitigu erakusten nola jokatu seme-alabekin, nola egin aurre beren arazoei, funtsean, nola izan guraso"*.

Urteotan, momentuan momentuko arazo eta beharrei erantzuteko asmoz, makina ekintza antolatu ditu Guraso Eskolak; hitzaldiak, tailerrak eta ikastaroak, besteak beste. Hau-ek guztiak bi ardatz nagusi izan dituzte, guraso izateko ezagutu beharreko oinarri zenbait eza-gutzea eta, era berean, eta kide guztiak emakumezkoak izaki, emakumeei aisialdirako aukera ezberdinak eskaintzea.

1991ean talde berria sartu zen Guraso Eskola osatzera, 15 bat kide guztira. Urteak aurrera joan ahala, ordea, kopuru horrek behera egin du nabarmen eta egun 4 kidek baino ez dute parte hartzen elkarte



honetan. Eskasia honen aurrean, Guraso Eskola bertan behera geratuko da datorren ikasturtetik aurrera.

Kide berriak lortzeko ahaleginak egin dira

Aurrerantzean eskola honek utzitako tokia nork beteko duen oraindik zehaztu gabe dagoen arren, Ikastolan Guraso Elkarte bat sortu beharko da ziurrenik. Hala eta guztiz ere, orain artean Guraso Eskolako kide izan direnek ez dute batere argi ikusten aukera hau, *"gaur egun inor gutxi baitago parte-hartzeko prest"*. Azaldu zutenaz, azken urteetan eta Guraso Eskolaren beherakada ikusita, behin eta berriz saiatu dira kide berriak lortzen. Hala ere, egun gurasoek ez omen dute hala-koetan parte hartu nahi, *"guztia egina ematea nahi dute, beraien-tzako inolako esfortzurik gabe. Egia da batzuk lana egiten dutela eta ez dutela denborarik, baina beste askok arratsalde guztia frontoian eserita ematen dute"*.

10 urtetan seme-alaben hezikuntzaren alde lanean aritu direnek nekez ulertzen dute jarrera hau, *"azken finean gure seme-alaben heziketa dago jokoan eta, hala ere, jendeak ez du lan egiteko batere borondaterik"*. Beraiek, behintzat, oso argi dute esperientzia oso ona izan dela, *"talde oso ona bildu gara urte hauetan eta esperientzia oso baikorra izan da, bai guraso bezala asko ikasi dugulako eta bai lagunarte ederra osatu dugulako ere"*.

Sortuko den elkarte berrian parte hartzeko deialdia

Penaz ikusten dute orain Guraso Eskolaren gainbehera eta guztiei deialdia luzatzen diete sortuko den elkarte berrian parte hartzeko. *"Seme-alabak hezitu behar diren bezala, gurasoak ere hezitu egin behar dira eta norberaren esperientziatik abiatuta, asko lagundu diezaiokegu alboko guraso horri"*.

Amagoia Mujika

Seme-alaba bat baino gehiago izateagatik dirulaguntzak emango dituzte

Askotan frontoi inguruan haur ugari ikusten dira eta "gero Usurbilen umerik ez dagoela esaten dute" esaldia behin baino gehiagotan entzunak gara. Hala ere, gure herrian, Euskal Herri osoan bezalaxe, jaiotze tasa beheruntz doa. Joera hori aldatu nahian, jaiotzaren hazkundera bultzatzeko plangintzarentzat urtero 13.500 milioi pezeta bideratzea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak pasa den uztailaren 3an.

Nola aldatzen diren gauzak! Lehen bost seme-alaba baino gehiagoko familiak nonnahi aurki zitezkeen Usurbilen, datoren urtetik aurrera, berriz, seme-alaba bat baino gehiago "mundura ekartzeagatik" ordaindu egingo dute. Izan ere, gure herrian, Euskal Herriko beste herrietan bezala, 25 urtetik beherako bi seme-alaba baino gehiago dituzten familiak gutxi dira. Jaiotze-tasak behera egin du Usurbilen ere. 70. hamarkadan batazbeste 95 haur jaiotzen ziren, azken hiru urteetako batazbesteko, berriz, ez da 55era iristen.

Laguntza ekonomiko emango dituzte zuzenak

Europa osoan jaiotze-tasa baxuena duen lurraldea garen, Eusko Jaurlaritzak jaiotzaren hazkundera gauzatzeko plangintza martxan jarriko du datorren urtean. Alde batetik, laguntza ekonomiko zuzenak emango ditu. Bigarren seme-alaba izateagatik 200.000 pezeta eta hirugarrena edo gehiago izateagatik 500.000 pezeta. Bikiak jaiotzen badira, 1.000.000 pezeta jasoko dituzte urtero haurrak hiru urte izan arte eta 500.000 pezeta 10 urte bete arte. Hirukiak edo



laukiak izanez gero, laguntzak haunditu egiten dira.

Horrekin batera, errenta zergaren (PFEZ) gaineko murrizpenak eta lan arloan eszedentzia edo ordu murrizpenak lortzeko erraztasunak emango dira. Lehen haurrarentzat 65.000 pezetako murrizpena egingo zaio familiari errenta zerga ordaintzerakoan; 80.000 pezetakoa bigarrenagatik; 120.000 pezetakoa hirugarrenagatik; eta 150.000 pezeta-

koa hortik aurrerako haur bakoitzarengatik.

Lan arloari dagokionez, hiru urteko eszedentzia hartzeko aukera bultzatuko du Jaurlaritzak. Horretarako, familiak gain, enpresari ere laguntza emango zaio, eta familiek diru gehiago jasoko dute eszedentzia aitak hartzen duen kasuetan. Lan ordutegia erdira edo herenera murrizteko aukera ere bultzatzeko asmoa iragarri dute.

FAMILIEI LAGUNTZAK

Jaiotzengatik dirulaguntzak

- **Bigarren haurra:** 200.000 pezeta.
- **Hirugarrena...**: 500.000 pezeta.
- **Bikiak:** 1.000.000 pezeta urtero 3 urte bete arte eta 500.000 pezeta 10 urte arte.
- **Hirukiak:** 1.500.000 pezeta urtero 3 urte bete arte eta 1.000.000 pezeta 10 urte arte.
- **Laukiak:** 2.000.000 pezeta urtero 3 urte bete arte eta 1.500.000 pezeta 10 urte arte.

Zergetan laguntzak

- **Errenta zergaren gaineko murrizpenak**
 - Lehen haurrarentzat 65.000 pezeta.
 - Bigarren haurrarentzat 80.000 pezeta.
 - Hirugarren haurrarentzat 120.000 pezeta.
 - Laugarrenetik aurrera 150.000 pezeta.
- **Errenta zergaren zergarinketa**
 - 35.000 pezeta 3 urtetik beherako haur bakoitzeko.
 - Haurrak gutxitu fisiko edo psikikoak direnean 65.000 pezetatik 150.000 pezetara.

Jaiotzen ondorengo eszedentziak eta lan murrizketak

- **Ordezkapen kontratuarekin:** gizarte-segurantzaren enpresa kotizazio osoa ordainduko da.
- **Hiru urterainoko eszedentzia hartzeko aukera:** Urtero 400.000 pezetako dirulaguntza eszedentzia amak hartzen badu eta 500.000 pezeta aitak hartzen badu.
- **Lan ordutegia erdira murrizten bada:** Urtero 300.000 pezetako dirulaguntza amarentzat eta 400.000 pezeta aitarentzat.
- **Lan ordutegia herenera murrizten bada:** Urtero 225.000 pezetako dirulaguntza amarentzat eta 300.000 pezeta aitarentzat.
- **Kasu guzti hauetan** eszedentzia hartu duen langileari bere lanpostua gordeko zaio.

Haur eskolak

- Lau urtetan 0-2 urteko haurren %40k eta 2-3 urteko guztiek sarbidea izateko aukera izatea espero da
- 0-2 urteko haurrak haur eskolan dituztenek kostuaren %60ko laguntza jasoko dute

Akabak 600 milioi pezetako inbertsioa egingo du Atalluko lantegi berrian

Lasarten eta Usurbilen lau instalazio ezberdin dituen Akaba enpresak lantegi berri bat eraikiko Atallu industrialdean. 8.000 metro karratuko azalera izango du eta horretarako 600 milioi pezeta inbertsioa egingo du. Enpresa honek kolektibitate-eta eta bulegoetako altzariak diseinatu eta egiten ditu eta bere produkzioaren %50 baino gehiago kanpoko merkatuetara esportatzen du.

Akaba enpresa oso ezaguna da altzari munduan. 1986. urtean ekin zion bere ibilbideari eta orduan hasi ziren hiru lagunetatik 85 langile izatera pasa dira. Altzariak diseinatu eta egiten dituen enpresa honek hasiera-hasieratik diseinu abangoardistak izan ditu ezaugarri nagusitzat. Bere lehen bildumetan maila haundiko diseinugile eta artistak aritu ziren lanean, hala nola Javier Mariscal, Andres Nagel donostiar eskultorea, Santiago Miranda sevilla diseinugilea edo Santiago Calatrava arkitekto eta ingeniaria. Hauekin, Akabak nazioartean oihartzun haundia izan zuen.

Ekipatzeko operazio bereziak diseinatzeko eta garatzeko duen gaitasuna da Akabaren ezaugarri berezietako bat. Hainbat proiektu aipagarri izan ditu eskuartean, besteak beste, Sevillako aireportuko jarlekuen programa, Bilboko



metro modernoko bankuak, Bilboko aireportuko altzariak... Bere produkzioaren %50 baino gehiago erosteko ahalmen haundia duten merkatuetara esportatzen du, hala nola, Estatu Batuetara, Britainia Haundira, Holandara, Frantziara, Japoniara... eta nazioarteko arrakasta horien bidez iaz Diseinua 2000 sari nazionala eskuratu zuten.

8.000 metro karratu izango ditu Atalluko lantegi berriak

Gaur egun 5.000 metro karratuko produkzio-eremua du Lasarten eta Usurbilen dituen 4 instalazioekin, baina orain Atallu industrialdean 8.000 metro karratuko lantegi bat egin eta ekoizpen osoa eraikuntza berri honetara pasako dute. Espainia eta nazioarte mailan dituzten

eskaerak haunditzen ari direnez, 2004. urterako irabaziak laukoizteko itxaropena dute, lantegi bakar bat izatea beharrezkoa ikusi dute. Horregatik, eraikuntza berria egitean lantegi bakarra izan eta makinaria eta teknologia mailako inbertsio berriak egiteko asmoa dute.

Atallun eraikuntza hau egiteko 500 milioi pezeta bideratuko dituzte eta gainerantzeko 100 milioiak azken belaunaldi-ko pintura tren moderno bat eta teknologia berria erosteko erabiliko dituzte. Lantegi berriarekin produktu lerro bat baino gehiago aurrera eramanez ahal izango dituzte aldi berean. Horrez gain, proiektu haundiek bezero txikientzat egiten duten ekoizpena ez atzeratzea ahalbidetuko du Atallu industrialdean egingo duten lantegi berri honek.



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



Euskal presoak etxera!

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea

Fatxaden konponketa



Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

Talde ekologistak Itzao eta Sariko ibarrak babestearen alde

Martxan, Eguzki eta Otea talde ekologistek Gipuzkoan ondoen mantentzen den ibai-ahoa hondatze prozesu arriskutsua jasaten ari dela salatatu dute. Oria ibaia babestu gabe omen dago eta urbanizazio proiektuen mehatxua gero eta haundiago dela ere jakinarazi zuten. Hone aurrean neurriak hartzeko eskatu die instituzioei.

Talde hauentzat haxe da Gipuzkoan ondoen mantentzen den ibai-ahoa. Lasartetik itsasoratzen den arteko zatia lehen sektorea eta bere tradiziozko usadioak bere horretan mantentzen diren ekosistema multzo aberatsa da beraien esanetan. "Oria ibaia natura aldetik esparru oso garrantzitsua da, bai egun dituen bio-niztasun indizeengatik, baita etorkizunean izango dituen aukerengatik ere. Eremu honetan desagertutzat ematen



ziren hegazti mota ugari Oria ibaian kokatu izanak argi erakusten du hori".

Hala ere, Oria ibaiak ez omen du gaur egun inolako babesik. "Eremu askotan urbanizazio basatiak egin dira, kultura eta ekologia ondasunak kontuak hartu gabe". Aldi berean, Orian ondoen mantentzen den zatia, Aginaga eta Orio bitartekoa, espekulazio inbiliararioaren helburua

omen dela ere salatatu dute talde ekologista hauek.

Mehatxatuta dauden eremu- en artean omen daude Itzao eta Sariako ibarra. "Jakín ahal izan dugunez eremu hauek Euskal Autonomia Erkidegoko hezeguneen sektorekako lurralde planetik kentzeko presioak izan dituzte herri-administrazioek. Honela, eremu horiek babestutako inguru naturala ez bihurtzea lortu nahi dute".

59 usurbildarrek eman zuten odola



Aurreko urteetan uztailan odola ematera ajende gutxiago joaten bazen ere aurten ez da horrelakorik gertatu. Pasa den uztailaren 9an izan zen odol emanaldira 59 usurbildar gerturatu ziren eta horietatik bostek lehen aldiz eman zuten odola. Guztira 23.6 litro jaso bazi- ren ere, Usurbilgo odol emaileen elkartekoek odola ematera animatu nahi dituzte orain arte inoiz horretara ausartu ez direnak. Hurrengo odol emanaldia irailaren 10ean izango da.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



Behoko kalea. 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK

Esteban Iribar: “Eskubaloia etorkizun iluna ikusten diot herri guztietan”

Esteban Iribar eskubaloia **lotuta ikusi izan dugu beti. Ez da inoiz Usurbil Kirol Elkarteko lehendakaria izan, baina egindako lana kontuan hartuko balitzateke postu horren gainera jarri beharko lukete. 1997an utzi zuen herriko eskubaloia taldea, baina orain, urte horietan egin duen lana eskeretzeko asmoz omenaldia egingo diote datorren abuztuaren 31n.**

Zenbat urte pasa dituzu Usurbil Kirol elkartearekin?

Guztira 18 urte. 1972tik 1974ra lehendabizi eta 1981etik 1997ra gero. Nire lagunek eskubaloian jokatzeko zuten eta hauen partidak ikustera askotan joaten nintzen. 1972an Benito Mujika entrenatzaileak taldeko delegatua izateko proposamena egin eta orduan sartu nintzen Usurbil Kirol Elkartearekin. Bi urte pasa nituen, baina ikastera kanpora joan eta 1981ean berriz hasi eta 16 urte egin ditut eskubaloia taldean.

Jende askok zu lehendakaria zinela pentsatzen zuten, baina ez da horrela izan ezta?

Hasierako bi urteetan delegatua izan nintzen. Garai hartan bi talde bakarrik zeuden eta zuzendaritzarik ere ez zegoen. 1981ean, berriz, jokalaria zeuden zuzendaritzan eta Txus Arzalluz zen lehendakaria. Ni idazkari modura sartu nintzen, baina denetik egiten

nuen. Jende askok lehendakaria ni nintzela uste izan badu ere inoiz ez naiz izan. Usurbil Kirol Elkarteko zuzendaritzako kide modura saltsa guztietan ibilia naiz, bai udalean, bai federazioan, baina idazkari modura beti.

Eskubaloia asko aldatua al da elkartearekin egin dituzun 18 urte hauetan?

Izugarri. 1981etik gaur egunera bizimodua erabat aldatu da. Garai hartako jokalariek taldean parte hartzea gehiago sentitzen zuten, herria defendatzen zuten jokatzeko ari zirenean. Jokatzeko beste jarrera bat zuten, gehiago saiatzen ziren eta taldearekin eta herriarekin identifikatuta sentitzen ziren. Orduan taldeak lehiatzeko aukera bakarra eskubaloian jokatzeko zen, baina gaur egun

kirol asko egin daitezke eta eskubaloiko jokalaria ateratzea ez da erraza.

Hala ere garai hartan beste mota bateko zailtasunak zenituzten ezta?

Bai. Ni elkartearekin sartu nintzenean 2. nazionalera igo zen lehen taldea. Maila hori sortu berria zen eta Gipuzkoan beste bi talde bakarrik zeuden maila horretan: Zarautz eta Legazpikoak. Beste taldeak Bizkaikoak, Burgoskoak eta Santanderrekoak ziren. Guk Santuenean jokatzeko zuten lehen maila egiten zuten gurekin eta euria egiten zuten gurekin. Prestaketan ere arazo handiak izaten ziren. Neguan eguraldi txarra egiten zuten eta ezin zen Santuenean entrenatu eta taldea asko jeisten zen bolada batzuetan.

Nola ikusten duzu usurbilen eskubaloia etorkizuna?

Etorkizun iluna ikusten diot. Baina ez hemen bakarrik, leku guztietan baizik. Bi mutur daude: boluntario-militante antzekoa izan behar da, edo bestela dirua irabazi behar da. Tartekoak ez gora eta ez behera gelditu dira.

16 urte hauetan une gozo asko izan ditu Usurbil Kirol Elkartek ezta?

Bai, kirol aldetik emaitza oso onak izan diren urteak izan dira. 1994-1995



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

**GALARRA
GARRAIO**

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

denboraldia, adibidez, oso ona izan zen. Aurreko denboraldian zortzi talde atera genituen eta denboraldi horretan zazpi. Kadeteak Euskadiko txapeldu-
nak izan ziren partidarik galdu gabe, nesken taldeak mailaz igotzea lortu zuen eta bi taldeekin estatu mailako txapelketak jokatzera joan ginen.

Kadeteak azken fasea jokatzera iritsi ziren.

Bai, baina orduan dezepzio handia izan nuen. Talde oso ona genuen, baina azken fase hau ekainaren bukaeran jokatu zenez mutilak ez zuden ondo. Batzuk lesionatuta, besteak formaz kanpo... seigarren postuan amaitu genuen, baina bestela hiru aurrenekotan gelditzeko aukera handiak genituen. Ordura arte urte osoan partidarik galdu gabe zeuden eta Malagara joan eta lehenengo partida hangoen kontra jokatu behar izan genuen. Hala ere, mutil talde honek emaitza bikainak lortu zituen eta kadete eta jubenil mailan Euskadiko txapel-
dun gelditu ziren.

18 urte hauetan une gogorak ere pasako zenituen ezta?

Unegogorak baino gehiago eguneroko lanean azaltzen ziren zailtasunak. Nire gain gauza gehiegi hartzea izan da nire pekatuetako bat. Lanetik atera eta eskubaloian sartzen nintzen buru-belarri. Astean zehar beti izaten zen egitekoren bat; bati hau falta zaiola, besteak hau nahi duela, partiduetako ordutegiak koordinatu... Hasieran ikastolako eskubaloia taldeekin ere ibiltzen nintzen asteburuetan. larunbat goizean pare bat partida, arratsaldean ere bai, igande goizean beste

Esteban Iribarri omenaldia abuztuaren 31n

❑ 18.00etan garai batean 1. nazionalen jokatzeko zuten nesken arteko partida.

❑ 20.00etan Bidasoa eta Galdar ohorezko mailako taldeen arteko partida.

❑ Afaria Aginaga sagardotegian. Bonoak Oiardo kiroldegian, Bordatxo tabernan, Arruti Bodegan, Aginaga sagardotegian eta federazioan salgai. Epea: abuztuaren 28a

hainbat ikusi beharra... hura eromena zen. Gerora hau bes-
teen esku uzten joan nintzen.

**Xabier Mikel Errekondo Usurbil Kirol Elkartean hasi eta Europa-
ko Kopa irabaztera iritsi da. Horrelakoetan gustora sentituko zara ezta?**

Gure taldean hiru urte egin zituen eta bi sentimendu kontra-
jarri izaten nituen. Alde batetik, zuen garaierarekin eta mugitze-
ko abileziagatik gora iristeko aukerak bazituela pentsatzen nuen, baina beste aldetik gu ondo ibiltzeko ere taldean iza-
tea nahi nuen. Orain, berriz, poza ematen dit hor goian jokatzeko ikustean eta ekainaren 22an Portland taldearekin kon-
tratua ez zuela berrituko irratian

entzun nuenean pena handia eman zidan, izugarritzko denbo-
raldia egin baitu.

Kiroldegia egiteko borrokan indar handia egin omen zenuen zuk.

Nik eta Usurbil Kirol Elkartek orohar. Kiroldegia egitearen alde borroka handia egin genuen. 2. nazionalen pista itxia eskatzen hasi ziren eta borroka luze bati ekin genion. Foru Aldundiak Usurbili biztanle aldetik kiroldegirik ez zitzaiola tokatzen esaten zuen, eta guk ezinbestekoa genuen. Irtenbide ugari bilatzen saiatu ginen, proiektu ugari izan ziren eta azkenean Oiardo kiroldegia egin zutenean izugarritzko poza hartu nuen.

JOSUE
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Telf: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05

Kalkos kopisteria

- ❏ Fotokopiak
- ❏ Fotokopiak koloretan
- ❏ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ❏ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ❏ Planoen kopiak (AO arte)
- ❏ Ordenadoreko lanak
- ❏ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ❏ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

ITURGINTZA

**JOSEBA
ARANGUREN**

Telf: 943 36 43 64

Artzabalgo babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izateko baldintzak

Artzabalen egingo dituzten babes ofizialeko 48 etxebizitzak eskuratu ahal izateko eskaerak aurkezteko epea irailean irekiko da. Pasa den ekainean egin zen ple-noan eskaera egin ahal izateko baldintzei hasierako onespina eman bazitzairen ere datorren uztailaren 24an egingo den udalbatzan emango zaie behin behineko onarpina.

Artzabal baserriaren aurreko lurretan 130 etxebizitza eraiki-ko dituzte laister. Ekimen pribatu-ko etxebizitzak dira, baina udalak egindako hitzarmen bat ondorioz babes ofizialeko 48 etxebizitza egitea adostu zuten. Orain, udalari dagokio etxebizitza horiek nahiz bakoitzari dagozkion garaje eta trasteroak esleitzea. Horretarako zozketa bat egingo da eskaerak aurkeztean dituzten gut-tien artean eta izena eman nahi dutenek bete beharreko baldintzak datorren uztailaren 24ko udalbatzan onartuko dituzte.

Txaramuto eta Arriate etxearen aurrean egin dituzten etxebizitzak esleitzerakoan erabilitako baldintzekin alderatuz ezberdintasun nabarmen bat dago: oraingoan gutxi-eneko eta gehieneko diru-sarrerak zehazten dira. 2000. urteko abenduan onartu zen dekretu batean agertzen den



ezinbestean bete beharreko baldintzetako bat da hau.

Hona hemen udalbatzan onartuko diren baldintza garrantzitsuenak:

- Eskatzaileek 1998ko urtarri-laren 1a baina lehenagotik Usurbilgo udalerrian erroldatu-ta egon beharko du eta 15 urteko epean herrian bizi izan direnak ere onartuko dira.

- Diru-sarrerei dagokionez:

- * Urteko gehieneko diru-sarrera 5.500.000 pezeta baino gutxiagokoa dela egiaztatu beharko da.

- * Urteko diru-sarrerak ezin-go dute 1.500.000 pezeta baino gutxiagokoak izan.

- * Gutxieneko edo eta gehieneko diru-sarreraren baldintzak betetzat jotzeko diru-sarreraren %90 lan-etekinetatik edo eta jarduera ekonomiko,

profesional eta artistikoetatik etorritako diru-sarrek izango direla egiaztatu beharko da Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren aitortpenaren bidez.

- Babes ofizialeko etxebizitzak lortu ahal izateko ezinbestekoa izango da azkenengo bi urtetan etxebizitzarik jabetzan ez izatea.

- Hala ere etxebizitza hauen onuradun izan daitezke beste etxebizitza baten jabe direnak, besteak beste honako kasu hauetan:

- * Aipatutako etxebizitza aurri-egoeran dagoela deklaratu denean edo etxea botatzea adostu denean.

- * Etxebizitza desjabetza-pen-espedienteren baten menpeko ondasun eta eskubi-deen behin betiko zerrendan dagoenean.

IGELTSERITZA

URDANTZI, C.B.

Mugikorra: 649435475
649435476
☎ 943 363370- 361439



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

BORDATXO
EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

Etxebizitza
pribatuak

Babes ofizialeko
etxebizitzak

Artzabal baserria

Olarriondoko
bidea

Puntapaxera
doan bide berria

Etxebizitza
pribatuak

Babes ofizialeko
etxebizitzak

Eguzkitzaldeko
etxeak



P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, ..

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

Kale Nagusia, 35
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 11



Imanol Agirretxek usurbildarrak Athletiken jokatu du datorren urtean

Usurbil Athletiken harrobia bihurtzen ari dela dirudi. David Asensio izan zen Bilbo aldera joan zen lehenengoa, Andoni Iraolak ere bide berdina eraman zuen eta orain, 14 urte besterik ez baditu ere, Imanol Agirretxe fitxatu dute. Azken urteetan bere atzetik ibili dira, eta hasieran ezezkoa eman bazuen ere, orain, datorren urtean Lezama aldera joatea erabaki du.

Udarregi ikastolarekin futbol zazpian ibili ondoren Antiguoko taldera joan zen Imanol Agirretxe duela hiru urte inguru. Duela bi denboraldi, lehenengo urteko infantila izan arren Ohorezko mailan jokatu zuen, eta azken denboraldian ez da batere gaizki ibili maila berean, aurrelari modura jokatzeko duen usurbildar honek 40 gol sartu baitzituen ligan.

Datorren urtean, ordea, Athletiken jokatu du kadete mailan. Azken denboraldi honetan Antiguoko taldeare-

kin entrenatu badu ere hilabetean bi aldiz Lezama joaten zen eta duela hilabete inguru datorren urtean hara joateko eskaintza egin zioten. Hala ere, berak esandakoaren arabera ez da Bilboko taldeak jokalaria honen atea jotzen duen lehen aldia. *"Duela lau urte inguru deitu zidaten, baina gurasoek hara joateko gazteegia nintzela uste zuten eta hemen jarraitzea erabaki*

genuen. Orain, aldiz, hara joan eta nire bizimodua aldatzeko gaitasuna badudala uste dutenez Athletikera joatea erabaki dut".

Hara joateko ilusio haundia- rekin dago Imanol. David Asensio eta Andoni Iraolarekin hitz egin ondoren hura oso ondo dagoela esan diote. Derion biziko da, ikasi ere handik gertu eta entrenamenduak, berriz, Lezaman izango dituzte. *"Kadete mailan jokatu du baina lehen taldean edo bigarrenen jokatu dudak ez dakit oraindik. Hala ere, bigarren taldean jarriko nautela uste dut, lehen urteko kadetea izango naiz eta".*

Erreal zalea da bera, talde honen eskaintzak ere jaso izan ditu, baina Lezama alderako bidea hartzea nahiago izan du. Bere esanetan Athletikek hobeto zaintzen du harrobia eta horrek zeresan haundia izan du hara joateko erabakia hartzerakoan.



45 usurbildarrez osatutako autobusa Piriniotara doa Haimar Zubeldia peñarekin

Haimar Zubeldia peñak antolatuta Pirinioetara Tourra ikustera joateko autobus bat osatu da. 45 usurbildar inguru Luz Ardiden mendatean izango dira datorren uztailaren 22an herriko txirrindularia animatzeko asmoz.

Uztailaren 21erako han izango dira, hurrengo eguneko etaparen amaiera bakarrik ikusiko dute. Pirinioetako bi etapa ikustera joatea zen Haimar Zubeldia peñakoen hasierako asmoa. Sant Lary mendatean 17. etapa ikusi eta hurrengo egunean Luz Ardide-nera joateko asmoa zuten,

baina mendate honetan ibilgailuentzat sarrera larunbatean arratsaldeko 16.00etan ixten dutenez Piriniotako azken etaparen amaiera bakarrik ikusi ahal izango dute.

Hala ere, ez dira hauek Tourra ikustera joango diren usurbildar bakarrik. Andatza Mendi Elkarteak ere Tourmalet eta Sant Lary mendateetara joateko bizikleta irteera antolatu du asteburu horretarako. Hala ere, kotxea hartu eta bertara txirrindulari proba garrantzitsuena ikustera gerturatu diren usurbildar gehiago ere izango da.



Lehiaketa



Egilea: Foto-Maria

Non dago amabirjina hau eta nola izena du?

Asmatzaileen artean Antxeta
tabernan bi pertsonentzat
afaria zozketatuko dugu



Egilea: Dominguez argazkiak

Ezkerretik eskuinera, goian: Joxe Martija, Anjel Matxain,
Ramon Unanue, Inaxio Unanue, Tomas Makazaga, Anjel
Matxain, Juan Joxe Kamino. Behean: Juan Martin Errasti,
Jose Ramon Sarasola eta Jose Goikoetxea.

Irabazlea
Peio Matxain
Saria
**Patri jatetxean
afaria**

Bertsoak

Bizitza bera istori zahar

Istori zaharrak azaleratu
behar dira aurtenguan
eta ni nola gaztea naizen
zaharrik ez det goguan.
Beraz aiton bat hartu behar det
solaserako orduan
galdetuz ea bere garaiko
pasadizorik ba duan
une polit bat gozatu nahi det
aiton biloben moduan.

Urteak asko izanagatik
ez nagok buruz galduta.
Istori eta pasadizoez
nagok aski hornituta.
Denen artean bazeukeat bat
pentsamenduan sartuta
nere bizitzaz hitz egin behar
diat patxaraz hartuta
azken finean bizitza bera
istori zahar bat duk_tu.

Entzun zak gazte, gure garaian
ez_uan izaten giro
bizimodua petrala eta
denbora beti astiro.
Egunsentia jaiotzerako
jeiki behar egunero
umea garaia heldu baino lehen
ume garaia igaro!
ez nikek hura ordainduta_re
bizitu nahiko berriro.

Mutil koxkorak izanagatik
lanean jarduten giñan,
baserri lanak egiten edo
morroitzako ahaleginan.
Jornalik ez zen lanaren truke
izaten gure adin
bi eguneko ogi gogor bat
saritzat mahaian izkinan
hobe genian zuen garaian
jaio izangu baginan.

Treinta y seisean bizitu nian
ordungo gerra ustela.
Esan nian ta, esaten diat
gerra dek gauza krudela.
Jakintzak denak, armak hartzera
bultzatu ohi zituztela
asko ta asko, han hil hintuan
jakin gezurra ez dela
ordun ez huan intsumisioik
egun dezuten bezela.

Frenteko lehen lerroan ez dek
familiarren babesa
bizi-irautea ez dek izaten
dirudin bezain erreza.
Euskadi aske batengatik
egin genian promesa
pena diat ez dela egi
bihurtu gure ametsa.
Baina egungo belaunaldiek
emango ditek sorpresa.

Gerra bukatu ta Usurbilla
nahiz garaipenik ez lortu.
Herri hontara etortzeakin
sekula ez nauk damutu.
Nere helburu garrantzitsunak
hemen dizkiat gauzatu,
bizitza berri bat hasi eta
famili eder bat sortu.
Hau baino gerra politagorik
ez dek munduan lehertu

Mendeak ditun laurdenetatik
nik hiru dizkiat iada
eta jakintzak hainbeste urtek
badiate beren karga.
Azkenaldian moteldu zaidak
nere bihotzan taupada
heriotzea etor zitekek
bapatean behar bada,
baina oraindik azken laurdena
bizi nahi diat ahal bada.

Hainbat urtetan gozatu diat
bizitza honen epela,
lehen bizkorra ninduan eta
bihurtua nauk motela.
Azkeneko konturatu nauk
hutsan hurrena naizela.
Ondorengoek istori zaharrak
txukun osa ditzatela
pena bat diat istori denak
berdin bukatzen direla

Egilea: Imanol Zarautz

 XV. Santixabel
bertsopaper lehiaketan
2.saria

Doinua: "Mutil koxkor bat..."

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95
Mugikorra: 609 068 III


MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia
hemen aurkituko duz
Udako moda berria zuretzat!
MERKEALDIK!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

A genda

ABUZTUAK 30 ostirala

- **Esteban Iribarri omenaldia** egingo dio Usurbil Kirol Elkarteak.

18.00etan garai batean **1. nazionalean jokatzan zuten nesken arteko partida** Oiardo kiroldegian.

20.00etan **Bidasoa eta Galdar ohorezko mailako taldeen arteko partida** kiroldegian. Ondoren afaria Aginaga sagardotegian. Bonoak Oiardo kiroldegian, Bordatxo tabernan, Arruti Bodegan, Aginaga sagardotegian eta federazioan salgai. Epea: abuztuaren 28a

OHARRAK

- ✎ Neska eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak 943 36 43 11 telefonora dei dezakezue.
- ✎ Mahaspildegi elkartearen bazkide postua salduko nuke. Telf. 943 365231.
- ✎ Chow chow arrazako txakurrak salgai. Pedigriarekin. Harremanetarako deitu 943 362072 telefonora.
- ✎ Belar bolak egiteko belarra eskaintzen da garbitze aldera Kalezarren. Interesatuak deitu 6306 47119 telefonora (Iñaki).
- ✎ Urrezko pultsera bat galdu nuen herrian pasa den maiatzaren 16an. Aurkitu duenak deitu 943 36 38 22 telefonora.
- ✎ Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu eguerdietan 656719442 telefonora.
- ✎ Munalurran garaje bateko marra saltzen da. Deitu 943 362424 telefonora.

- ✎ Txinparta sagardotegian jendea behar da, ahal bada esperientzia duena, barran edo jangelan lan egiteko. Kurrikulumak Txinpartan utzi.

- ✎ Gitarra española bat dut salgai. Admira Juanita marka. Ehun bikoitzekoa eta forraturiko forro beltzarekin. Ia erabili gabea, oso egokira onean dagoena. Prezioa: 16.000 pezeta. Telf. 678 375 390.

- ✎ Neska bat eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 361115 telefonora.

- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.

- ✎ Betaurreko batzuk galdu dira anbulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udalera eraman ditzala.

- ✎ Urrezko belarritakoa galdu nuen hilaren 15ean Kalezarko plazan. Aurkitzen duenari ordainduko zaio. Telf. 943 360643

- ✎ Lonja bat, batez ere trastero bezala erabiltzeko, erosiko genuke. Kalezar auzoan egon behar du derrigorrez.

Telefona: 943. 36.14.49. Orduategia: 13.30etatik 14.30 etara eta 20.00etatik -20.30etara.

- ✎ Txori kaiola haundiak ematen ditugu modu onean. Telf. 943 364354

- ✎ Motozerra elektrikoa salgai. Sugurra prestatzeko primerakoa. Telf: 943 364354

- ✎ Peugeot 106 ibilgailua salgai. Gasolina. M-8625-XX matrikuladuna, 27.000 km (2 urte). 850.000 pezeta. Interesatuak deitu 943 372607 telefonora arratsaldetan.

- ✎ Pisu bat alokatu nahiko nuke Usurbilen edo bestela pisu konpartitu batean sartu nahiko nuke. Interesatuak deitu 943 793147 telefonora (Josema).

BATZARRA

Eguna: Uztaillaren 28an

Ordua: 11.45etan lehenengo deialdia
12.00etan bigarren deialdia

Tokia: Elkarteko aretoa

Eguneko gai zerrenda

- 1- Aurreko akta onartzea. 2000-07-22 ohiko batzar nagusia.
- 2- 2000-2001 denboraldiaren memoria.
- 3- 2000-2001 denboraldiaren balantzea.
- 4- 2001-2002ko aurrekontua.
- 5- Zuzendaritzaren proposamenak.
- 6- Eskariak eta galderak.



N • I
Ileapaindegia
MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura
Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZATZATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95
Mugikorra: 609 068 111



SALTXIPI JATETXEA



Sanesteban jai zoriontsuak
opa dizkizuegu guztioi!

**Txokoalde, z/g
USURBIL**

**Telf: 943 36 11 27/ 943 37 10 94
Faxa: 943 36 55 54**

Zubietako Herri
Batzarrak jai
zoriontsuak opa
dizkizue zubietar
guztioi!



Gora Santioak!

